

“KOSMODISEARI ESKER, IKASLEEK BEREN IDEIAK PROIEKTU BIHURTZEN DITUZTE”



Gorka Matute - Aita Larramendi Ikastola | DBH [1. saria]

Gorka Matute Aita Larramendi Ikastolako “Lucky” taldearen arduraduna da. Talde horrek lortu du Kosmodisea 2011-2012 programako DBH kategorian lehen saria. Irakaslearen ustez, ekimen honetan parte hartzearen esperientzia oso positiboa izan da ikasleentzat. *“Azken urteotan hainbat talderekin hartu dugu parte eta, hasiera-hasieratik, ikasleek oso jarrera ona izan dute”.*

- Zure ustez, zein izan da ekimen honen alderdi interesgarriena ikasleentzat?
- *Ikasleentzat interesgarriena beren proiektuak garatzea izan da. Hainbat tresna erabiltzen dituzte eta, azkenean, beren ideiak ekintza bihurtu eta oso lan interesgarriak egiten dituzte. Teknologia berriak erabiltzeak asko laguntzen die, lanerako oso motibatuta baitaude.*
- Nola jaso dituzte ikasleek lortutako emaitzak?
- *Orokorrean, oso pozik agertu dira. DBHko talde batek lortu du lehen postua; ezustekoa izan da. Beste taldeak ere oso ongi egin du lan eta emaitza ederrak lortu ditu.*
- Kosmodiseako 2011-2012 edizio honetan hainbat aldaketa txertatu dira, hala nola, Grapho Planeta fasea gehitzea edo wikiei garrantzi handiagoa ematea. Zer iruditu zaizkizue berrikuntza horiek?

- Wikiari garrantzi handiagoa ematea oso egokia da, baina, aurreko edizioekin alderatuz, ikasleek lan edo proiektua gutxiago garatu dute aurten, lehen ere wikia lantzen baitzuten. Egia esan, aurtengo edizioako wikiak pasa den urtekoak baino osatuagoak gelditu dira, horiek zuzentzeko denbora gehiago izan baitute.

- Zure ustez, zein balio onuragarri lor daitezke Kosmodisean parte hartzean?

- Ekimen honek sorrarazten dituen baliorik garrantzitsuenak, ekintzailtza sustatzetik aparte, talde-lana eta teknologia berrien erabilera dira. Taldea behar bezala antolatzea, guztien artean lan egin, erabakiak hartu eta proiektuak eratzea oso interesgarria da adin horretako ikasleentzat. Beren ideiak ekintza bihurtzeak balioa ematen dio egiten dutenari eta, gainera, teknologia berriak erabiltzen dituzte. Ikasleentzat oso proiektu aberasgarria da.

- Zein alderdi da, zure ustez, Kosmodisea 2011-2012ko onena? Eta zein alderdi dira hobetu edota aldatu beharrekoak?

- Gai baten inguruan lan egiteko eta proiektu bat aurrera ateratzeko duten askatasuna. Edo, beste era batera esanda, ekintzaile sena garatzeko duten aukera. Oso lan originalak eta politikak egiten dituzte.

- Parte hartuko al duzue Kosmodiseako datorren edizioan?

- Baietz espero dugu.

Ideiak, iritziak, iradokizunak, iruzkinak, kritikak...

- Ezer berezirik ez. Proiektu mota hauek sustatzen jarraitu behar duzue. Animo eta beste batera arte.